

## **Donostia 2016 Protokoloa**

Aurten Donostia da Europako kultura hiriburua. Gertakari hau dela-eta, Euskararen Gizarte Erakundeek **Kontseiluak**, Euskal Herri osoko hizkuntza mugimenduak bilzen dituen federazioak Hizkuntza eskubideen Potokoloaren proiektua bultzatzen du. Izendapen ofizialak:

"Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa".

"Protocole pour la garantie des droits linguistiques".

Gobernuz kanpoko ekimena da, Donostia 2016 fundazioaren onarmenarekin. Momentuz ezin dira partaide izan erakunde ofizialak, hala nola Euskal Kultur Erakundea, Euskararen Erakunde Publikoa, ez eta Herriko Etxeak ere. Aldiz parte har dezakete euskara sustatzen duten elkarteak. Bai eta herritar oro, bakoitza bere izenean, baina ez erakunde publiko baten ordezkari bezala.

### **Ekimenaren historia**

1996an, (hain zuzen duela 20 urte) Bartzelonan, UNESCOren babespean, CIEMEN eta beste gobernuz koapoko egitura batzuk landu zuten eta zabaldu Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala (HEDU). Dokumentu hau eskubide zerrenda bat da. Orain eskubideak gauzatzeko eginbideetara iragan behar dugu.

2016an Kontseiluak Protokoloa eraikitzen eta bultzatzen du, Kyotoko Protokoloa eredutzat hartuz. Engaiamendua hartzeko tenorea da, ekintza batzu eramateko, desagertzear diren herri hizkuntzak zaintzeko eta garatzeko. Adierazpena 2016ko abenduan egingen da. Anartean hizkuntza eta kultura elkarteak gomiatuak dira Protokoloaren idazketan parte hartzera.

### **Protokoloaren egitura**

Protokoloa piramidearen antzera diseina daiteke.

Puntaren puntan **bi egitura sustatzaile** Kontseilua eta Donostia 2016 fundazioa.

**Talde antolatzailean sei erakunde**, gehienak gobernuz kanpokoak:

1. ELEN, Europako hizkuntz berdintasunaren aldeko sarea, Europako Parlamentuan onartuadana, lehengo (EBLUL) hizkuntza gutiagotuen eurobulegoaren jarraipena hartu baitu.
2. CIEMEN, katalanera, beste hizkuntzen, estaturik gabeko herrien defentsa segurtatzen duen egitura da. Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren idazkaritzaz arduratu zen.
3. LINGUA PAX international: UNESCO-tik sortu zen 1987an. Gaur egun gobernuz kanpoko erakundea da hizkuntz aniztasunaz arduratzen dena.
4. ECMI, gutiengoen gaietarako Europako zentroa.
5. PEN international, idazleen erakundea.
6. UNPO ordezkatuak ez diren herri eta nazioen erakunde ordezkatzailea.

### **Aholkuraritza maila**

Batzorde zientifiko batek biltzen ditu 17 irakasle eta ikertzaile ezagun, hizkuntzalaritza eta zuzenbide maila ezberdinetan adituak. Lan taldearen ardura da proposamenak biltzea eta araberako neurriak idaztea, ahal bezain kalitatezkoak jurilinguistikaren aldetik.

### **Proposamen maila**

Piramidearen oinarrian daude herri hizkuntzez arduratzen diren elkarteak, berdin norbanakoak proposamenak egiteko. Hots gizarte eragileek garantzi handia hartuko dute Protokoloaren prestakuntzan. Alabaina eragile hauek izanen dira Protokoloaren gauzatzaileak eta erakundeen akuilatzaileak. Lehen aldia da Europa osoko hizkuntza komunitate ezberdinetako gizarte eragileak biltzen direla; beheretik abiatzen den urraspide bat da, nolazpait gizarte eragileen ahalduntze historiko bat. Ekarpinak ekaineko bilduko dira eta aurten osatuko den dokumentua baliagarri izanen da Europa osoan.

### **Zer egin dezakegun**

Lehenik **gidaliburua** eskuratu behar da eta osatu. Giliburuan fitxa batzu badira eta zuen iritzia eskatua zaitzue, zuen ustez zer egin behar den herri hizkuntza zaintzeko eta garatzeko. Bospasei komunikazio eremu aztertu behar dira: administrazio publikoa, hezkuntza, onomastika, hedabideak eta teknologia berriak, kultura eta lan mundua. Eremu bakoitza identifikatu ondoren, neurri linguistiko egokiak proposatuko dira, lorpena ebaluatzeko adierazleak finkatuz.

Kontseilua prest da gidaliburuak hornitzeko, elkartei informazioa emateko bideo polit batekin eta gure proposamenak biltzeko. Oraindik informazioak aurkituko ditugu **protokoloa.eus** webgunean.

Guk, Iparraldean, motibazio berezi bat badugu Protokoloaren prestakuntzan parte hartzeko. Oroit gaiten 1992ko Hizkuntza Gutituen Eurokartaz. 24 urtez ele zuriak entzun ditugu, hitza eman digute eta hitza jan, gobernuak sinatu baina parlamentuak ez berretsi, eztabaidak bai baina iritzi ezkorrak nagusi. Denboraren buruan Legebiltzarrak onarpenaren alde bozkatu zuen. Berrespenaren lortzetik bi urratsetan ginen. Azkenean Senatuak Eurokarta peko erre kara bota du eta sekulakotz, debateari uko egin ez. Deus ezin erran, demokrazia omen baita.

Haatik euskal hiri bat Europako kutur hiriburu den une honetaz baliatuko gara, Protokolo alternatiba proposatzeko. Hain zuzen **Donostia 2016** kari, Europa euskararen alde mobilizatzeko baita beste herri hizkuntzen alde ere. Eurokarta hil da. Requiem. Bizi dadika Protokoloa. Eta Euskal Herria.

*Erramun Bachoc, EKE Biltzar Nagusian, 2016-03-19.*